

VITORIA-GASTEIZ SINFONIA

**Fundación Laboral San Prudencio
50. urteurrena ospatzeko konposatua**



PRINCIPAL ANTZOKIA

2019ko apirilaren 4a





Vitoria-Gasteiz Sinfoniaren Kontzertua

**Fundación Laboral San Prudencioaren
50. urteurrena ospatzeko konposatua**

apirilaren 4a

2019

Sinfoniaren babesle ofiziala



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Kolaboratzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**PROGRAMARI BURUZKO OHARRAK**

Juanjo Mena 5

Bingen Mendizabal 6

PROGRAMA 7

Sinfoniaren HITZAK 8

EGILEAK:

Juanjo Mena: Orkestra-zuzendaria 11

Bingen Mendizabal: Sinfoniaren konpositorea 13

Kike Suárez Alba: Zati elektroakustikoaren jatorrizko musika 15

Ruper Ordorika: Hitzen konpositorea 16

Luis García: Koro-zuzendaria 17

ORKESTRA ETA HAURREN KOROA 18

PROGRAMARI BURUZKO OHARRAK

Zoragarria da hainbeste ilusio sortzen duen proiektu honetan parte hartu ahal izatea. Batzuetan, balio gehiegi ematen zaizkie ekitaldi handiei, hiri baten kultura arloaren kanpotik datozen multzo, talde edo erakundeen bermea dutenei. Eta hiriak bere egiten ditu, horiek sortzeko inolako parte-hartze aktiborik izan gabe.

Hori dela eta, hiri batek ez badu gaitasunik ekitaldi horiek bere baliabide propioekin, profesionaltasunez kudeatutako proiektu egonkorrekin eta oinarri sozial aktibo batekin sortzeko, hiriak ezingo du bere kultura propio gisa identifikatu.

Kultura oinarrietatik sortzen da, proiektu hau bezala, 50 urte eta gero irizpidez, ausardiarekin eta profesionaltasunez kudeatutako Fundazio batetik sortzen baita. Erakundea hiri baten oinarrietatik sortua da, gizartetik, langile eta erakundeetatik; haiek eratu zuten, elkarrekin hazteko akordioak ezarriz.

Eta horrela sortu zen gure hiriaren oinarriekin kontzertu bat egiteko proiektu zehatz hau:

- Bingen Mendizábal konpositore gasteiztarrari, entzute musikal handikoari, obra sinfoniko bat eskatu genion; testua hiriko kantautore batek, Ruper Ordorikak, idatzi zuen. Obra honek La Fundación San Prudencioaren eta Gasteizko hiriaren ibilbidea ditu inspirazio-iturri.
- Hiriko hainbat musikaririk, "Jesus Guridi" Kontserbatorioko irakasle eta ikasleek, kantu koraleko eskolako haur eta gazteek eta hiriaren bihotz kulturalarekin lotutako hainbat musikaririk eraten dute Gasteizko Principal Antzokian egingo den interpretazioan parte hartuko duen orkestra.
- Hiriko Soinu eta Akustikaren Ingeniaritzako profesional batzuen esku jarri dugu kontzertua grabatzeko, eta diska sortzeko eta editatzeko ardura, Martin Guridi buru duten Sonora Estudiosen esku, hain zuzen.
- Proiektua kudeatzeko, antolatzeko eta errealizazio tekniko eta musikala egiteko konfiantza, hirian aitortza handia duten profesionaleri eman diegu: Esther Cenarruzabeitiari, Helena Gonzalezi eta Juanjo Menari.

Hemen apaltasunez ematen dizugu, baina Gasteizko biztanle asko hunkiarazi, ilusioz betearazi, eta artistikoki haziarazi eta gozarazi ditugunaren pozaz.

Adeitasunez,
Juanjo Mena



PROGRAMARI Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot La Fundación San Prudenciori Gasteizentzat, ene sorterri kutunarentzat, sinfonia bat konposatzeko enkargua. **BURUZKO** Fundazioaren berrogeita hamargarren urteurrenaren itxiera ekitaldiko amaiera gisa eta ondare komunarentzako legatu gisa aurkezten den sinfonia konposatzekoa. **OHARRAK**

Hasiera batean, proiektua zaila iruditu zitzaidan, ez bainuen aurkitzen hiriarentzako soinu bereizgarri bat. Geroago, Esther Uncetarekin hizketan ari nintzela, iraganeko eta orainaldiko alderdiek eratzen dituzten hainbat errealitate uztartzera bultzatu ninduen: Wellingtongo Dukeari eta Gasteizko Batailari eskainitako L.W. Beethovenen sinfoniari erreferentzia. Batailatan inor garaile ez den arren, lehenengo mugimendua egituratzeko ildo nagusi gisa baliagarria izan zen niretzat. Olerki sinfoniko militar horrekiko erreferentziak zati zentrala betetzen du eta, haren atzetik, hondamenezkoagoa den zatia dator.

“Heroitasun” horien ostean etortzen dira ajeak: hildakoak, zaurituak eta era guztietako ezbeharrak. Beraz, zati hau hondamendizko denbora eta espazio baten moduan eratzen da, eta haren atzetik, garapenezkoa eta eraikuntzazkoa den beste bat dator. Egitura aberasteko, soinu elektroakustikoak sartu nituen, Kike Suárezen talentuaren eta ahalmenearen esku utzi nituenak. Soinuen abiapuntua batailari buruzko erreferentzia akustikoak ziren eta, pixkanaka, agertzen diren soinuak eraikuntzarenak, fabrikenak eta hiriarenak dira. Kaosetik kosmos eraikitzaileara igarotzea da bigarren mugimenduaren leitmotiva. Dena esanahia eta forma hartuz zihoan. Juanjo Menak lehenengo mugimendua lehen aldiz entzun zuenean, triste samarra iruditzen zitzaiola esan zidan. Arrazoi zuen, ideia mugimendu horrek iragana adieraztea zen.

Ordurako, hirugarren mugimenduari “Argi” jarri nahi nion, alabari bezala. Nolabait, haren izena etorkizunaren ideiarekin eta itxaropenarekin lotu nuen. Estherrek zati koral bat ere nahi zuen. Iruditu zitzaidan egokiena hirugarren mugimenduan sartzea zela, haurren abesbatza batekin, etorkizuneko itxaropenaren irudikapen gisa. Hitzen enkargua Ruper Ordorikak zuen. Testu benetan ederrak konposatu ditu, izaera tradizional eta metaforikoa dutenak eta, gainera, sonoritate oso berezia gehitzen dutenak. Abesten den lehenengo zatia zortziko bat da, Arabako erritmo esanguratsuenetariko bat. Bigarrena, lo-kanta bat. Hirugarren mugimendua ere esanahiez betetzen zihoan.

Erabakita nuen: mugimenduek iragana, orainaldia eta etorkizuna irudikatuko zituzten. Horrela deituko nien: Lur, Ur eta Argi. Elementu horiek nire haurtzaroko amets errepikakor baten parte dira: bakarrik nengoen hondarra, ura eta eguzkia zituen hondartza batean, betikotasun sentsazio batek inguratuta, ez zegoen denborarik; espazioa besterik ez zegoen. Bigarren mugimendua arinagoa eta eraldatzaileagoa da: etengabeko forma aldaketak ditu, urak bezala. Orainaldia adierazten du.

Konposizioan sekretu gehiago daude, baina ez ditut kontatuko.

Adeitasunez,
Bingen Mendizabal

Programa

Lehenengo mugimendua _____ LUR
Bigarren mugimendua _____ UR
Hirugarren mugimendua _____ ARGİ

Sinfoniaren hitzak

ZORTZIKO HITZAK

¿Dónde está tu madre, niña bonita?
Se ha ido a trabajar, muy de mañana.
¿Dónde está tu padre, criatura hermosa?
Se ha ido a trabajar, solo.
El Gorbea está nevado, y yo me quedo en casa.

La vida sigue su camino y nosotros con ella.
Vamos al trabajo por los mismos cantones de siempre.
Dicen que somos afortunados por saber
dónde vivir y en qué trabajar.
Hay nieve en el Gorbea y mi hija se queda sola en casa.

¿Dónde está tu madre, niña bonita?
Se ha ido a trabajar, muy de mañana.
¿Dónde está tu padre, criatura hermosa?
Se ha ido a trabajar, solo.
El Gorbea está nevado, y yo me quedo en casa.

No tengas miedo, amatxo bonita,
aita, ve tranquilo tú también.
Aquí me tenéis para cuidaros,
para protegeros a los dos, para acariciaros,
aunque nieve fuera, aquí me tenéis a mi.

UME AHOTSAK

ARABA, ene amama,
zu zara, ene ama,
garia, mahastia,
zu zara, alaba.
Orbela udagoienan
zu zara, alaba
udaran iturria
zu zara, geroan
etengo ez den haria
zu zara, araba.

Non da zure ama, txikitxo polit hori?
Lanera joan da, goiz goizik.
Non da zure aita, umetxo eder hori?
Lanera joan da, bakar bakarrik.
Elurra Gorbeian, etxean nago ni.

Bizitza aurrera eta gu berarekin
lanera beti kantoi beretik
Zorioneko omen gara jakinik
Non bizi eta zertan lan egin,
Elurra Gorbeian, alaba etxe(a)n bakarrik.

Non da zure ama, txikitxo polit hori?
Lanera joan da, goiz goizik.
Non da zure aita, umetxo eder hori?
Lanera joan da, bakar bakarrik.
Elurra Gorbeian, etxean nago ni.

Ez beldurrik izan amatxo polit hori
aita, zu ere zaude lasai
Hemen nauzue zuek biak zaintzeko
biak laztantzeko, babesteko
elurra ba da ere, hemen nauzue ni.

ARABA, amama,
eres mi ama.
Trigo, vid,
eres mi hija.
En otoño, Araba,
eres hojarasca.
Fuente, en verano,
Araba, tu eres el hilo
que perdurará
en el futuro.

VITORIA-GASTEIZ SINFONIA

Fundación Laboral San Prudencioaren
50. urteurrena ospatzeko konposatua



PRINCIPAL ANTZOKIA

2019ko apirilaren 4a



Juanjo Mena

Orkestra-zuzendaria

Juanjo Mena nazioarteko zirkuituko zuzendari espainiar ezagunenetakoa da. Gaur egun, Cincinnati May Festivaleko Zuzendari Nagusia da. BBC Philharmonic-eko Zuzendari Titularra, Bergen Filharmoniske Orkester-eko eta Genovako Carlo Felice Antzokiko Zuzendari Gonbidatu Nagusia, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoko Zuzendari Titular eta Artistikoa izan da.

Entzute handiko taldeak zuzentzen ditu, hala nola Berlin, Londres, Rotterdam, Oslo, della Scala (Milan) eta Dresdeneko filarmonikoak, Bavariako Irratiaren, Suediako Irratiaren orkestra sinfonikoak, Danimarkako orkestra sinfoniko nazionala, Frantziakoa, Tonhalle Zurich, Bamberg eta Konzerthaus Berlin orkestra sinfonikoak, eta Espainiako orkestra nagusiak.

Ipar Amerikako orkestrarik garrantzitsuenak zuzendu ditu: Chicago, Baltimore, Cincinnati, Montreal, Pittsburgh eta Torontoko sinfonikoak, New York eta Los Angeleseko filarmonikoak, eta Cleveland, Minnesota, Filadelfia eta Washintongo orkestrak, besteak beste. Erregularitasunez zuzentzen du Boston Symphony Orchestra, kontzertu-sasoian zehar, zein Tanglewood jaialdian.



Birak egin ditu BBC Philharmonic-arekin, Alemanian, Austrian, Txinan, Hego Korean, Hungarian, Kroazian, Eslovenian eta Espainian, eta Londresko BBC Proms ospetsuetan egon ohi da.

Juanjo Menak hainbat grabaketa egin ditu BBC Philharmonicarekin Chandos diskoetxearentzat. Dagoeneko salgai dauden diskoetan omenaldia egiten die J.C.Arriaga, A.Ginastera, I.Albéniz, M. de Falla, G.Pierné, X.Montsalvatge, C.M.von Weber eta J.Turina-ri, eta kritika oso onak jaso dituzte prentsa espezializatuan. O.Messiaen-en Sinfonia Turangalila ere grabatu du, Hyperion diskoetxearekin eta Bergen Philharmonic-arekin; kritika espezializatuak erreferentziazko lantzat jo du.

2016an Musikaren Sari Nazionala jaso zuen Juanjo Menak, Interpretazio modalitatean. Beste hainbat sari ere jaso ditu: Ojo Crítico Saria (2000), Musika Bulegoa Saria (2016), Donostiako Orfeoia - EHU Saria (2017), Arabako Urrezko Domina (2017), Ramón Rubial Saria (2017), Sabino Arana Saria (2018); 2018an Gasteizko Seme Kutun izendatu zuten.



Bingen Mendizabal Sinfoniaren konpositorea


Bingen Mendizabal Vitoria-Gasteizen jaio zen, 1962ko abenduan. Musika-ikasketak 1969an hasi zituen, Gasteizko kontserbatorioan.

Biolin-ikasketak egin ditu (Albina Madinabeitiarekin), eta baita piano, harmonia, kontrapuntu, fuga eta konposizio ikasketak ere (Carmelo Bernaolarekin).

Beste hainbat ikastaro ere egin ditu, prestakuntza osatzeko (konposizio garaikidea Gabriel Brencic-ekin, musika elektroakustikoa Luis de Pablarekin eta musika zinematografikoa Antón Garcia Abrelekin).

Elkarlanean aritu da, musikari gisa, hainbat talde eta abeslarirekin (Mikel Urdangarin, Hertzainak, La Polla Records, Gorka Knorr...), antzerki taldeekin (Geroa, Teatro paraíso), eta konposizioak egin ditu kontzertu, bideoinstalazio, inaugurazio eta hainbat eratako erakusketetarako.

1989tik, zinemarako musika egiten du, eta lanean aritu da estatuko zuzendariekin (Juanma Bajo Ulloa, Enrique Urbizu, Moncho Armendariz, Imanol Uribe, Manolo Gutiérrez Aragón, Mariano Barroso, Manuel Gómez Pereira) eta nazioarteko zuzendariekin (Marcelo Piñeiro, Julian Temple, Betty Kaplan, Francisco Lombardi).



Berak egindako soinu-bandarik ezagunen artean daude:

- Alas de mariposa (1991) Urrezko Maskorra Donostiako Zinemaldian, 1992
- La madre muerta (1993) Círculo de Escritores Cinematográficos-en soinu-bandarik onenaren saria, 1993
- La regenta (1994) TVEren saioaren soinu-banda
- Bajo la piel (1996)
- Airbag (1997)
- Secretos del corazón (1997) Urte horretan bertan Oscarrerako proposatu zuten filma
- Doña Barbara (1998)
- La hora de los valientes (1998)
- Pantaleon y las visitadoras (1999)
- Visionarios (2001)
- El viaje de Carol (2002)
- Kamchatka (2002)
- Cosas que hacen que la vida valga la pena (2003) Soinu-bandarik onenaren saria Montecarloko zinemaldian
- Reinas (2005)
- La carta esférica (2007)
- El juego del ahorcado (2008) Soinu bandarik onenaren Goya sarirako proposatu zuten
- La máquina de pintar nubes (2009)
- Arriya (2011) Soinu-bandarik onenaren saria Malagako zinemaldian



Kike Suárez Alba

Zati elektroakustikoaren jatorrizko musika

Sortzaile diziplinaitza eta autodidakta. Familatik datorkio tradizio artistikoa, musikan, pinturan eta marrazkigintzan aritu da, eta baita dekorazioan, diseinuan, infografian, bideoan eta zinemaren ere. Irakasle jardun zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Irudi eta Teknologia Berrien Zentroan. Bateria jotzen du (Nahiko, Segundo Banana, eta abarretan) eta baita perkusioa, pianoa, gitarra eta baxua ere. Musika konposatzen du telebistarako, antzerkirako, dantzarako eta soinu-banda zinematografikoetarako: (Año Mariano, Rey Gitano, eta abar.).



Ruper Ordorika Hitzen konpositorea

Ruper Ordorika ahots bereziko kantaria dugu, bere ezaugarrien artean: testu bikainak eta musikaltasun oparoa. Disko ezagun haundiak osatu ditu bere kantuekin, eta beste hiru, kantu zaharrekin, "Hiru Truku" taldean.

Ruper Ordorika maila gorenean dabil euskal musikan, dela berak idatzitako kantu hautatuekin, dela artoski aukeratutako idazleen testuekin. Oihartzun sakoneko abesti-egilea dugu.

Ruper Ordorika euskal musika herrikoia erreferentzia bat da, ez bairik gabe. Horixe frogatzen dute bere abestiek eta konposizioek, gauzak gogora ekartzeko ahalmen handia baitute, bai berak egindako testuak dituztenek bai arduraz handiz aukeratutako olerkiak dituztenek.

Hamabost diskotik gora argitaratu ditu, eta beste hiru Hiru Trukurekin, euskal musika tradizionalako hirukote emankorrekarekin. Ruper Ordorika ahots propioa duen autorea da; testuak fintasun handiz zaintzen ditu, ikuspegi musikal landua du, eta gai da bere tradizio herrikoiarekin uztartzeko eta abangoardiako musikarekin elkarlanean aritzeko.



Luis García Koro-zuzendaria

Luis García Beltrán de Guevarak Koru-zuzendaritza lanak egin ditu, zuzendari laguntzaile gisa eta organo-jotzaile nagusi gisa, Eltziegoko San Andrés de la Riverako abesbatzan. Horretaz gainera, herri bereko Virgen de la Plaza Eskolaniako zuzendaria izan da. Halaber, Arabako Abesbatza Sinfonikoaren fundatzailea izan zen. Gainera, pedagogia-lanak egin ditu abesbatzen arloan hainbat musika-eskolatan eta, gaur egun, abesbatza-irakaslea da Vitoria-Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan.

Bestalde, irakasle gisa jardun du, honakoak irakatsiz: Musikaren historia, Artearen historia, Estetika, Pianoa, Analisia, Akonpainamendua, Musika-hizkuntza eta Harmonia. Irakaskuntza lana musika-eskola ugarietan egin du: Arrasate musikal-en, Donostiako CEMean (Musika Ikasketen Zentroa), Aretxabaletako Leizarra Musika-eskolan eta Eskoriatzako Musika-eskolan, besteak beste. Beste zenbait ikasgai ere irakatsi zituen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan: Forma musikalak eta Garraioa, Erreperentziazioa eta Piano akonpainamendua.

Hainbat artikulu argitaratu ditu Eufonía, musika-aldizkari espezializatuan.

Gaur egun Abesbatza eta Musikaren historia irakasten ditu Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan.



Camerata Gasteiz Orkestra

2003an sortu zen, Sabin Salaberrik bultzatuta. Orkestra, funtsean, Vitoria-Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioko irakasleek eta ikasle ohiek osatzen dute. Hainbatetan jasotzen ditu Euskadin zein Euskaditik kanpo jotzeko eskaerak eta, orkestraren programazioaren baitan, aipatzekoak dira orkestradun solo instrumentaleko formatuan egiten dituen obrak eta gaur egungo konpositore profesionalen estreinaldiak. Halaber, beste talde batzuekin elkarlana egin izan du eta aipatzekoa da Araba Abesbatzarekin egindakoa: Vicente Goikoetxea konpositoreari buruzko diskoa argitaratu dute elkarrekin duela gutxi. Luis Aramburu konpositore gasteiztarraren disko monografikoan ere parte hartu du.

Sinfoniako Haurren Koroa

JESÚS GURIDI KONTSERBATORIOKO EEEE (Oinarrizko Irakaskuntza) KORUA

Abesbatza, Musika-hizkuntza eta Musika-tresna ikasgaiak Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioko oinarrizko graduako (3. eta 4. maila) curriculumean daude.

Diziplina horrek ahots-hezkuntzako lehenengo oinarrizko ezagutzak ematen ditu, eta ahots-hezkuntza modu globalean ulertzen da, ahotsa hitz egiteko zein abesteko orduan lantzen baita.

Horretaz gain, oinarrizko graduako helburu orokorrek adierazten dituzten gaitasun asko lortzen laguntzen du, baliabideak eskaintzen baititu barneratutako ezagutzak interpretazio batean islatzeko, beti partekatua den erantzukizunarekin.

Orkestrako Musikariak Vitoria-Gasteiz Sinfonia

Fundación Laboral San Prudencioaren 50. urteurrena ospatzeko konposatua

LEHEN

BIOLINAK

Victor Parra
Luis Ibiricu
Xabier Mtz. Ochagavía
Alaitz Ayala
David Pulido
Nika Bitchiashvili
Patxi Azurmendi
Ainhoa Rincón
Noemi Santamaría
Leire Hipólito
Elba Palomo
Alfonso Rodríguez

BIGARREN BIOLINAK

Agustí Coma
Isabel Acevedo
Virginia Esparza
Fede Madrazo
Enrique Campos
Eva Soto
Esther Conde
Naia Gómez
Eliso Avazashvili
Iñaki Lagos

BIOLAK

Carlos Seco

Ainhoa Marauri

Edurne Olazabal
Jon Prieto
Ainara Basaguren
Loreto Alonso
Iraide Sarria
Rosa Gutiérrez

TXELOAK

François Monciero
Estibaliz Oraá
Nuria Nieto
Belen Fernandez
Maria Zubikarai
Arantza Etxabe
Nerea Barrena

KONTRABAXUAK

Josu Izaguirre
Julio Cesar Romero
Olatz Almanara
Patxi Almanara

TXIRULAK

Xabier Calzada
Carmen Martínez

OBOE

Vicente Elizondo
Juan Mari ruiz

KLARINETEAK

Patxi divar
Puy Azurmendi
Eider García de la Torre

FAGOTA

Aitor Gullon
Patricia Pazos

TRONPETAK

Niko Zubia
Angel Ugarteburu

TRONBOIAK

Juanma Saez
Iñigo Sarasola

TRONPAK

Haizea Valdecillo
Asier Urreta

PERKUSIOA

Olaya Montoya
Gorka Catediano
Gorka Sáez de Ibarra

TINBALA

Felix Divar

Haurren Koroa Vitoria-Gasteiz Sinfonia

Fundación Laboral San Prudencioaren 50. urteurrena ospatzeko konposatua

Adrián Velasco Murillo

Aitor Brea Rivera
Alaia Duque López de Subijana
Alazne Estévez Iglesias
Amaia Aguirre Urrutia
Anaís Cecilia Calvo Amigo

Ander Alonso Arribas

Ane Garitano Gómez

Ane Gutiérrez Garzón

Ane López de Aspuru

Ane Valpuesta Del Barrio

Beñat Ruíz de Infante Villasante

Candela Chaves Benítez

Cecilia Borderas Madrazo

Cecilia Botaz Antepara

Celina Osazuma Omoruyi

Clara Cid Ibáñez

Daniel Lecuona Zaldivar

Daniel López-Davalillo Ayucar

David Elejalde Asurmendi

David Hernández Gómez

Diego López de Eguilaz Calvo

Elaia Agirre Legarreta

Elena Fernández de Aranguiz Vidaurre

Eneko Ciarrusta Insagurbe

Eva Laespada Sanz

Francisco Javier Hernández Gómez

Gorka Ugartondo Núñez

Héctor Colodrón Blanco

Helena M^a Bernal Rosado

Hodei Oteo Saiz

Ibai Alba Ordoñana

Imanol Bertotto Ascasso

Iñigo García Apellániz

Irati Garitano Lapuente

Irati Txapartegi Beltrán de Heredia

Irati Zurbitu Núñez

Irene Andrade Lanaspe

Iruñe Sánchez-Ruiz Bastida

Jan López de Ipiña Dorsman

Jon Gayarre Cortés

Jone Camacho González

Julen Aja Gómez

Julen Aulestiarte Sáez de Cerain

Julia Sáez Alberó

June Iza Lezeta

Maddi González de Heredia Angulo

Maia Ayerbe Erquiaga

Maialen Armentia Blanco

Maialen Zabalegi Valdecantos

Maidier Beltrán de Nanclares Rosado

Maitane Anda Gómez

Maitane Rodríguez Villoslada

Maren Fernández de Okariz Irureta

Maren Larreina Astola

Maren Vilches García

María Arriba De Rozas

María Diéguez Díaz

María Sánchez Pérez

Marina Corres Díaz de Otazu

Martín De las Heras De Santiago

Miren Vicandi Vitoria

Nahia Dorronsoro Ruíz de Larrinaga

Naia Briones Barrena

Naiara Suarez Lima

Naroa Asarta Gómez de Segura

Naroa Loma Rivera

Naroa López de Ipiña Dorsman

Nicolás Ibarondo Knörr

Noa Urquiza Ruíz de la Illa

Olatz Trabanca Lorenzo

Pablo Díez Matabuena

Saida Jambriña González

Samuel Rodríguez Echeverría

Sara Abad Fernández-Labastida

Sara Corres Puebla

Sofía Gutiérrez Hatouchykava

Susana San José Jarquin

Tania Moral Giraldo

Unax Ortega Aristi

Uxue Gómez Barredo

Uxue Oraá Torquemada

Uxue Sandoval Urbizu

Zuriñe Yuanmei Domínguez Bernal

50



AÑOS
URTE

La Fundación SAN PRUDENCIO

Sinfoniaren babesle ofiziala



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Bazkideak



ElectraVitoria
Orona



Babesleak

EUSKADI
BASQUE COUNTRY




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Kolaboratzaileak



euskaltel

Fournier